

IDATZIZKO ULERMENA

Urteberria olatuen artean ospatzen

Gurean hotza eta negua jaun eta jabe diren Gabon-sasoi honetan, uda hasi berri dute Brasilen. Itsasoko ura epel dago, eta hondartzak, jendez gainezka.

Izan ere, Brasilgo Gabonen ospakizunean garrantzi berezia du itsasoak. Gabon zaharrear, Copacabanako hondartza entzutetsuan, «filhas do santo» direlakoek (apaiz emakume afrikarrek) kandelak piztu, eta lorez eta opariz beteriko txalupa txikiak botatzen dituzte itsasora. Itsasoak eramatea seinale ona da, Yemanjá Itsasoetako Jainkosak urte berria bedeinkatu egiten duela esan nahi baitu horrek.

Baina, urte berrian zortea eta zoriona ziurtatu nahi izanez gero, zazpi olaturen gainetik salto egin beharra dago, tradizioak agintzen duenez. Gainera, garrantzitsua da arropa zuriak jantzita edukitzea itsasoan oinak sartzean.

- Urteko zein arotan ospatzen dituzte Gabonak Brasilen?
- Zer egiten dute Copacabanako hondartzan Gabon zaharrear?
- Zer adierazten du itsasoak txalupak eramateak?
- Zer beste bi gauza egin behar dira urte berri ona ziurtatzeko?
- Zuk zer egiten duzu urte berria hasteko? Zer nahiago, zeurea ala brasildarrena? Zergatik?

Bukatu dut: -BAI ☐

-EZ ☐